

Euskadiko Antzoki SAREako programatzaileei musika proiektuak aurkezteko deialdia

Euskal Herriko Musika Bulegoa Elkarteak SAREako programatzaileen eta musikaren sektoreko profesionalen arteko topaketaren zortzigarren ediziorako musika proposamenak aurkezteko epea ireki du.

Ekimenaren helburua: Antzokietako programatzaileen eta interesa duten musika eragileen arteko topaketaren esparruan: deialdiaren ezaugarriak betetzen dituzten **2025-2026**rako musika-emanadiak eskuragarri izatea.

Euskadiko Antzoki SAREako antzokietan musika-programazioa eta kontratazioa sustatzeaz gain, SAREako programatzaileek eta musikaren sektoreak elkar hobeto ezagutzea sustatu nahi dugu.

Topaketaren formatua: Aukeratutako proiektuen ordezkariak bere **musika-proiektuen aurkezpenak 10 minututan** egingo dizkiete SAREako programatzaileei. Zuzeneko emanaldiak dituzten aurkezpenak lehenetsiko dira. Horretarako, aretoak musika set bat izango du.

Aurkezpenen ondoren, ordu eta erdiko **networking saio bat egongo da**. Taldeek eta artistek 5 minutuko bilera azkarrak egiteko aukera izango dute programatzaile guztiekin.

Hautatutako taldeek eta/edo artistek 120 euroko laguntza jasoko dute Musika Bulegotik, dietak eta joan-etorriak ordaintzeko.

Eguna eta tokia: **Apirilak 2, Arriola Antzokia. (Elorrio - Bizkaia). Goizeko jardunaldia.**

Norentzat: Haien jarduera profesionala musikagintzan burutzen duten eta fakturatzeko ahalmena dutenentzako (musikariak, sustatzaileak, agentziak, managerrak, diskoetxeak, etab.) Musika Bulegoko bazkideak (zuzenak zein zeharkakoak).

Musika-ikuskizunek topaketan parte hartzeko izan behar dituzten ezaugarri nagusiak.

- ❖ Musika-proposamen berriak, originalak edo bereziak.
- ❖ Barruko agertokietara egokitutako musika-proposamenak.
- ❖ 2025-2026eko emanaldietarako prest egongo diren proposamenak.

Eskatutako informazioa: [Eskaera-inprimakia](#) bete.

Epeak: Proposamenak **otsailaren 17ra (23:59) arte aurkeztu** ahalko dira. Data honetatik aurrera ez da proposamenik onartuko. Hautatutako proiektuak martxoaren hasieran jakinaraziko dira.

Aukeratzeko irizpideak: Musika Bulegoko eta SAREAko profesionalak osaturiko lan batzorde batek aukeratu dituzte proiektuak. Batzordeak honako alderdi hauek hartuko ditu kontuan:

- ❖ Musika-ikuskizunaren originaltasuna.
- ❖ Proiektu edo diskoen estreinaldia.
- ❖ Euskal Herriko ikuskizunek izango dute lehentasuna.
- ❖ Barruko agertokietarako egokitasuna.
- ❖ Aukeraketan genero berdintasuna eta adin aniztasuna egotea.

Antzokien askotariko ezaugarriak kontuan izanda, alderdi hauen arteko oreka bilatuko da:

- Musika-estiloa.
- Behar teknikoak.
- Proposamen ekonomikoak.

Informazio gehiago: proiektuak@musikabulegoa.eus